

SARRATE, M.L. eta HERNANDO, M.A. (koord.) (2009)

Intervención en Pedagogía Social. Espacios y Metodologías. Madril: Narcea.

Liburu honetan Pedagogia eta Gizarte Hezkuntzan oinarritzko formazioa jasotzeko hainbat ekarpen interesgarri bildumatzen dira, beraz oinarritzko liburua unibertsitate ikasketetan. Bi zati ongi estrukturatueta banatzen da. Aurreneko zatian, oinarri teorikoak eta metodologi garrantzitsuenak eta gizarte esparruan dauden hezkuntza esku-hartzen guneak aurkezten dira: hezkuntzaren testuinguruaren eta kulturaren eragina, gizarte eta kultur animazioa, hiritarren parte-hartzea eta garapen komunitarioa. Bigarren zatian sei dokumentu biltzen ditu, nazioarte eta estatu mailan datarren milurterako esanguratsuak, dokumentu hauetan oinarri deontologikoak eta talde ezberdinekiko, bereziki nagusiak eta helduak, esku-hartze sozio-hezitzailearen ikuspegi orientatzaileak azaltzen dira.

Hauetako dokumentuak: Milurtekoaren Garapenerako Xedek, 2008; Hezitzailearen Kode Deontologikoa Gizarte Hezitzailea, 2004; Pertsona Nagusien Dekalogo, 2003; CONFITEA VI. Helduen Hezkuntzari buruzko Seigarren Nazioarteko Batzarra, 2007; Plan erreakzioa helduen Ikaskuntzari buruz, 2007; Aisialdiaren Nazioarteko Eskutitza, 1998.

Lan honen ezaugarrietako bat biltzailea izatea denez, kapitulu ezberdinek ikuspegi partikularretatik abiatzen dira, dena dela nabarmentzekoa da azalpenen argitasuna, honek analisi teorikoen ulermena errazten du eta baita esparru horretan izan diren aurrerapen eta jokaera eta ekimen berri-tzaileen interpretazioa.

Autoreen ikuspuntuetan ezberdintasunak ere ikusten dira ereduaren planteamenduetan eta gizarte esku-hartze paradigmatan. Horrela, lehen kapitu-

luan nabarmen azaltzen da Gizarte Pedagogiak bideratuta betidanik egon den zientzia/teoria arteko bereizketa eta baita esku-hartze/praktika Gizarte Hezkuntzaren berezko zeregin bezala. Konpartitze honek, sarritan, ikerketa eta ekimenak beharrezkoa dutela elkarren arteko harremana ideia ahultzen du, praktikatik abiatzen den teorizazioa, aurrerapen zientifikoko prozesu bezala, lanbide praktiken hobekuntzara bideratuta, edozein jokabide esparruetan eta bereziki gizarte-hezitzaile lanbideetan. Ikuspuntu hau nabarmendua eta azpimarratua da bereziki garapen komunitarioari buruzko kapituluan, honen eta gizarte-kultur animazioaren arteko harremanari ekiten zaionean, esku-hartzearen faseak azaldu ondoren.

Bukatzeko esan ekarpen egokia dela baliabide bezala, gizarte arloan eta hezkuntza arloan bereziki ez-formalean, lanean ari diren profesionalentzat konpetentzi orokor eta espezifikoak eskuratze prozesuan, EES proposamenen markoan.

Arantxa Uribe-Etxeberria

BARREÑA, A. eta taldea (2008)

MacArthur-Bates Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda. Erabilentzako gida eta eskuliburu teknikoa. Bilbo: UEU.

MacArthur-Bates-ek aurkezten digun liburuan Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrenda (KGNZ) izenekoaren gida eta eskuliburu teknikoa aurkezten du. Komunikazio Garapena Neurtzeko Zerrendak hizkuntza-jabekuntza goiztiarraren prozesuaren berri ematen du; horretarako, komunikazio-garapenaren hainbat alderdi hartzen ditu kontuan: ulermen eta ekoizpen lexikoa, ekintza eta keinuen bidezko komunikazioa, morfologia eta gramatika. Test honen helburua da umeen komunikazio-garapenean izan litezkeen atzerapenak antzematea, eta neurri egokiak hartuta, atzerapenek ekar ditzaketen kalteak ekiditea.

Tresna hau Estatu Batuetako MacArthur fundazioak sortu zuen 80ko hamarkadaren bukaeran, jatorrizko bertsioa ingelesez diseinatu bazen ere, gaur egun, tresna honen erabilera beste hizkuntza batzuetara hedatu da eta badira 30 hizkuntza baino gehiago tresna honen egokitzapena egina dutenak edo egiten ari direnak. Euskarazko egokitzapena urte askotako ikerketa-lanaren ondorioa da eta Euskal Herri osoan erabilgarria izan dadin euskalki ezberdinetako hitzak erabili dira.

KGNZ bi bertsio ditu: «Hitzak eta Keinuak» eta «Hitzak eta Esaldiak». Lehenengoak neurtzen du zortzi eta hamabost hilabete bitarteko haurren komunikazio-garapena, eta bigarren bertsioak hamasei eta hogeita hamar hilabete bitarteko haurrena.

KGZ-a ikerketa talde baten fruitua da. Mondragon Unibertsitateko eta Euskal Herriko Unibertsitateko ikerlariak gain, Seaska eta Salamancako Unibertsitateko ikerlariak osatu dute ikerketa taldea. Oso baliagarria izan daitekeen tresna baten aurrean gaudela zalantzarik ez dago, bai orientatzaile edota edozein moztako hezitzailearentzat lagungarria izan baitaiteke.

Josu Txurruka

CERRO JIMÉNEZ, S.M. (2010)

Grafología pedagógica aplicada a la orientación vocacional. Madrid: Narcea.

Cerro Jimenez grafologo eta zuzenbidean lizentziatuak idatzi duen liburu honek lau atal ditu: Grafologiaren kontzeptua eta historia da lehena, letren morfologiari buruzkoa bigarrena, bokazioa eta bokazio-orientazioa dator gero eta motibazio pertsonalen atala da azkena.

Grafologia zer den azaltzen hasteko, historian idaztea eta nortasunaren arteko loturei buruz, pentsalari, idazle eta zientzilariek esan dutenaren errepaso egiten du Cerrok: Aristóteles, Huarte San Juan, Shakespeare... Metodo grafologikoaren sorrera Italian kokatu ondoren, eskola nagusienak azaltzen ditu: Frantziako eskola mimikoa Crepieux-Jamin-en eskutik, Suitza-ko eskola sinbolikoa Max Pulver mediku-psikologoa aitzindari duela, Alemaniako eskola erritmikoa Ludwig Klages buru duela eta eskola emozionala azkenik, Rafael Shermann eta Curt Augusto Honroth-en lana aipatuz.

Idatzi bat aztertzerakoan letren morfologia eukizten da kontutan, hots, hizkien tamaina, forma, makurdura, presioa, abiadura, lerroen norabidea, letren arteko lotura maila eta antolaketa. Genero hauetako bakoitzaren barruan espezieak deitzen diren letra-tankerak daude. Liburu honetan modu arin batean begiratzen dira genero hauek, ondoren orriaren zuriuneei eta sinadura-izenpeari tartetxo bat egiteko. «Sinadura laburtutako biografia» (Max Pulver) izanik, testutik hurbil edo urrun, tamaina handian edo txikian egiteak... etab. zer adierazten duen azaldu ondoren «grafología induktiboari» buruzko zertzelada batzuk eskeintzen dizkigu egileak: letra zehatz batzuk modu batean edo bestean egiteak nortasunari begira dituen implikazioak (*M* larria eta autoestima, *t* eta autoritatea, *A* eta autokontzeptua, *g* eta sexualitatea, *i* eta zehaztasuna...) Ordenagailuan idazterakoan ere aukeratzeko den letra motak ere erakutsi dezake izateko era bat eta laburpen txiki bat aurki dezakegu liburu honetan.

Bokazioari buruzko hirugarren kapitulan, teoria klasikoen gainbegirada bat egiten da. John Holland-en zentratzen da eta bere sailkapenari jarraituz letra-motak erakusten dizkigu. Analisi grafologikoa bokazio-orien-

taziorako interesgarria izan daiteken beste tresna bat bezala aurkezten du eta bereziki Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxillergoan ikasleak orientatzeko baliagarria dela dio.

Laugarren atalean motibazio pertsonalen kontuari heltzen dio egileak. Lidergoa, ekimena, inhibizioa, tradizioa, materialismoa... bezalako ezauzgarriak nola identifikatu idazkeran azaltzen du, batez ere Max Pulver-en ezagutzak kontutan hartuta. Spranger eta Allport-en tipo psikologikoen (teorikoa, estetikoa, erlijiosoa, politikoa, soziala, ekonomikoa) arabera ere deskribatzen dira idazkerak. Lana borobiltzeko, bokazio-perfilak eta idazkera motak erlazionatzen ditu. Adibidez, giza-zientzietarako/informazio-zientzietarako/zientzia teknikoetarako... euki behar diren kompetentziak eta grafologikoki zein itemetan islatzen diren kompetentzia hauek.

Irune Ibarra

SIMON RODRIGUEZ, M.E. (2010)

La igualdad también se aprende. Cuestión de coeducación. Madril: Narcea.

Maria Elena Simon hezkidetzarako eta hizkuntza ez sexistan eginiko hainbat lanen egile dugu. Liburu honek 252 orrialde ditu. Orrialde hauetan zehar egileak hezkidetzaren teorizaziotik proposamen didaktikora eramaten gaitu, hezkidetzan oinarritutako ikaste-irakaste prozesuak eraikitzeko baliabidez lagundurik.

Egilearentzako gaur egungo hezkuntzak badu zertan hobetu eta hori, agidanean, *berdintasunerako hezkidetzan* oinarritutako hezkuntza praktikara eramatearen beharrean kokatzen du. Bere irudikoz, belaunaldi gazteagoek orain arteko estereotipoak eta generoaren araberako rol banaketak errepikatzen dituzte ezberdintasunak, gutxiespenak eta genero indarkeria erreproduzituz. Denok ala denok badugu ekarria egiterik arlo honetan, eta zer esanik ez, hezitzaileok, berdintasunean oinarritutako ikaste-irakaste prozesuak antolatzen.

Jakin badakigu hezkuntza ez dela eskolaren ardura soilik, horretan guztiok garela erantzule. Ikuspegi horretan, egileak *hezkidetzarako pedagogia* bat proposatzen digu, eragile guztien ardurapean pertsonaren garapen jasagarriagoa sustatzeko, eta zalantzarik gabe, gizartearen onurarako pentsatua. Finean, androzentrismoa, matxismoa eta sexismoa bezalako jarrerak moldatzeko proposamen didaktikoak jasotzen ditu aipatu proposamenak.

Liburuak aurkezpenaz eta hitzaurreaz gain zazpi atal nagusi biltzen ditu. Lehen bi ataletan gaur eguneko hezkuntza ez parekidera iristeko jaso-

tako herentzia aurkezten digu, alegia familian, eskolan eta gizartean emaniko genero bereizkeriak aztertzen ditu. Funtsean, garai hauek bizi izan ez dituzten hezitzaileentzako testuinguraketa egokia dela esan daiteke eta zer esanik ez, parekidetasunari begira geure praktikak arakatzeko ideiak hartzeko. Hirugarren atalean, xx. mendeko hezkuntza-praktikaren egoeran geldiunea egiten du argi-ilunak aztertzeko eta hemendik aurrera, laugarren atalean, etorkizunera begira jartzen gaitu, alegia hezkuntza parekide baten beharrari begira. Guztiontzako ezaguna den esaldia ekartzen digu gogora, «Parekidetasuna hezkuntza kontua da», eta egileak erantzuten du, bai ados, baina zein hezkuntza mota?. Hurrengo bi ataletan, bost eta sei, Maria Elena Simonek hezkidetzarako pedagogia aurkezten du. Eskolak hezkidetzan duen egitekoa aitortu, baloreak eta ereduak finkatu eta genero ikuspegi zehazten ditu. Azken atalak aldiz, zazpigarrenak, bere ikuspegi pedagogikoa praktikara eramateko eta egingarria dela jabetzeko proposamen didaktikoak aurkezten ditu.

Hezkidetzarako printzipioak ezarri eta estrategia metodologiko ezberdinak eskaintzen dituelako liburu gomendagarria eta baliagarria da zalan-tzarik gabe.

Olaita Jimenez Arrieta

JASOTAKO LIBURUAK

LÓPEZ BARAJAS ZAYAS, E. (coord.) (2009)
El paradigma de la educación continua. Reto del siglo XXI. Madril: Narcea. UNED.

AMADOR, L. eta MONREAL, M.C. (2010)
Intervención social y género. Madril: Narcea.

BOZA, A. eta beste (2010)
Educación, investigación y desarrollo social. Madril: Narcea.

RUÉ, J. eta LODEIRO, L. (2010)
Equipos docentes y nuevas identidades académicas. Madril: Narcea.

SÁNCHEZ GONZÁLEZ, M.P. (2010)
Técnicas docentes y sistemas de evaluación en educación superior. Madril: Narcea.

HAIGH, A. (2010)
Enseñar bien es un arte. Madril: Narcea.